

V. «RIKARDO ARREGI» KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

V. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoaingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, M^a Pilar Collantes Ibáñez, Andoaingo Alkatea eta Mahaiburua dena, Jesus Etxezarraga Zuluaga, Elixabete Garmendia Lasa, Joserra Garzia Garmendia, Joxe Aranzabal Mendizabal, eta Idazkari lanetan eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe jardun duen Jon Unanue López-ek osatu duten Epaimahaiak alegia, honako azken erabaki hau ezagutzera ematea akordatu du:

1.- Aurreko edizioan bezala, V. edizio honetan Epaimahaiak bere esku eta begietatik egin du «Sekzioa», «Baloraziozko kazetaritza» eta «Erreportaia» ataletako jarraipen eta hautaketa lana. Beraz, euskal kazetarigintzan barrena luze-zabalean ibili da hainbat hilabetez, lehen hiru atal hauetako sariak erabakitzerakoan izan zitzan aztermenean saria jasotzeko adinbateko kalitate maila eta mamiz argitara emanak zitezkeen lan guztiak. Behin egunkari eta aldizkari denak arakatu eta azterturik eman zien hasiera sariak erabakitzeko eztabaida lanei. «Herrietako aldizkariak» atalean, berriz, urtero bezala lanak egileak berak aurkezteko erizpideari eutsi diogu, eta, denetara, berrogei eta bat lan aurkeztu dituzte herrietako aldizkarietako kazetariak.

2.- Epaimahaikideok ohitura egin dugu urtero-urtero, sariak ezagutzera eman aurretik, gure iritzi edo hausnarketarik azaltzea sariko jarraipen eta azterketa lanetan antzeman edo ikusi ditugun, eta baita ere akaso ezustean harrapatu gaituzten, euskarazko kazetaritza munduko hainbat errealitate, egoera, baldintza edo gertakariz. Apaltasun osoz egin ohi dugu ozeneko hausnarketa lan hori, uste osoa baitaukagu hori euskarazko kazetaritza jorratzen duen kazetari ororen eginkizun eta, are gehiegi, saihetsi ezin den obligazio izateaz. Urte batetik bestera gauzak askok nahi genukeena beste aldatzen ez

diren arren, poliki-poliki euskal kazetaritzak ematen dituen urratsak iazko balorazioa osatzeko aukera eman digute aurten.

3.- Bi puntu dira aurten oso bereziki nabarmendu nahi ditugunak: batetik, gero eta ugariago den, eta joriago landua, herrietako kazetaritza, eta, bestetik, euskarazko kazetaritzan bere burua sendotzen ari den kazetari belaunaldi berria. Bi faktore horien argitara esan liteke, egungo euskarazko kazetaritzak izan lezakeela etorkizunean eraldaketarik, hala kuantitatibo nola kualitatiborik, eta beharrezko dituela oso gisa horretako aldaketak.

4.- Benetan pozgarria da ikusi ahal izatea herrietako aldizkarien atalean gero eta gehiago direla Euskal Herri osoan argitara ematen direnak. Zalantzarik gabe, hori da orain eta hala izango da gerora ere euskarazko kazetaritza idatziaren "harrobi"-rik nagusiena. Bestetik, euskarazko kazetaritza idatziari irakurleak gehitzeko biderik egokienetakoa gerta litezke, herritarrek hain hurbileko duten informazioa eskainiz gorpuztutako herrietako aldizkariak. Alabaina, ez dezagun une bakar batez ere ahaztu herrietako aldizkariak ez direla oro, ezta gutxiagorik ere, bitarteko eta balibide profesionalez landuak, eta denboraren poderioz zenbaiten kasuan gerta litekeela hasiera batetako ontasun eta kalitate mailak behera egitea, horrek alorrari lekarkiokeen lorrinarekin. Horregatik, epaimahaikideon iritziz behar-beharrezko gertatzen da aldizkaririk duten herrietako udalen ihardun eremuan, maila goragoko erakundeenetan egin ohi den legez, kazetaritza ihardun hori bultzatu eta lagunduko duen programarik osatzea, nork bere ahalmenen neurrian.

5.- Euskarazko kazetaritzara apurka-apurka iritsi diren kazetari gazteen presentzia gero eta nabarmenagoa da gure komunikabide idatzietan. Askotxo dira, hain zuzen ere, aipatu berri dugun herrietako aldizkarien «harrobi»-tik iritsi direnak. Zubixkaz beste aldera egin duten kazetari berri horien eskuetan legoke gure ustez, babesik gabe uzten ez baditugu behinik-behin, euskarazko kazetaritzan hain beharrezko den hainbat eraldaketa, eduki eta formazkorik. Bidebatez, euskarazko kazetaritzan dihardutenen kopurua

haunditzeak aukera eman beharko liguke Sari honetan jorratzen ditugun atalak -erreportaigintza eta baloraziozko kazetaritza, esate baterako- maizexeago eta oparoxeago landu ahal izateko. Baina aurreko puntuan genion gauza bera adierazi behar dugu hemen: ihardun-programa bereizituak hezurmamitu behar dira kazetarien lan-baldintza egokiak eta gaikuntza bide iraunkorrak bermatzera iritsiko bagara.

6.- Azaldu ditugun ozeneko hausnarketa labur eta soil hauek ontzat hartu dituzuelakoan, gatozen orain, behingoz, aurten sarituak izan diren kazetari eta lanen aipua egitera.

Lehenengoz eta behin esan dezagun, ordea, atal guztietan ez dela erabakia ahobatez hartzerik izan, eta, kasuren batetan, lehia haundia izan dela saritzeko zorian zeuden azkeneko lanen artean. Ez beza inork pentsa, beraz, ezinbestean bide errazetik emandako sariak direnik. Betidanik izan ohi du gogoan Epaimahaiak sariak hutsik uzteko oinarriek damaioten aukera.

7.- Bada, horratio, erizpide bat urtero-urtero gogorarazi ohi duguna, eta, aurrerantzean ere, argi eta garbi azpimarratuko duguna: *«huts-hutsik, idazlanen eta sekzioen kazetal balioa hartu da kontutan, beste edonolako kontsiderazioren gainetik eta aurrerago aipatzen den beste zenbait erizpideren kalterik gabe. Beste hitzetan esanda, euskarazko prentsa normalduan inolako homologazio arazorik gabe leku propioa izango luketeenak saritu dira»*.

8.- Honako hau da, hori guztia kontutan hartuta, sariei dagokienez Epaimahaiak bere egiten duen erabakia:

9.1.- «Herrietako aldizkariak» ataleko saria, 200.000 pezetaz hornitutakoa. Aipatu erizpideez gain erabakiorra izan da saria ematerakoan egileek gaia jorratu eta idazterakoan egin duten galbaean azaldutako trebetasuna, nola baita ere irakurlearen interes eta jakinmineko zitezkeen puntu nagusiak hautatzen eta elkarrekin lotzen jakin izana. Alde horretatik azpimarratzekoa da gaiaren mamia landu eta eskaintzen saritutako kazetariak egin duten ahalegina.

✎ Saritutako idazlana: «*Pagosa Okindegia, eguneroko ogia*», GOIERRITARRA aldizkariaren 28. zenbakian argitaratua, 1992. urtean.

Autorea: Jon Mikel Arano eta Mikel Albisu jaunak.

9.2. «Sekzioa» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Kasu honetan, saritu beharrekoa «*mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa*» izan behar dela diote, hitzezitz, Andoaingo Udalak ezarritako oinarriak. Saritutako sekzioak merezimendu bikainak bildu ditu bere baitan Epaimahaikideen azterlana aurrera joan ahala. Mundu osoko kirolzaleen arreta biziki bereganatzen duen ikuskizun baten gaineko oso ikuttu pertsonaleko sekzioa osatu du sarituak, kirol ihardun horren berri ematerakoan hizkera aberats eta zaildua irakurlearen ulerpideko hiztegi eta estiloarekin erkatuz. Gainera, kirol ikuskizun horren klabe informatiboak irakurleari helarazterakoan benetan lan txukuna eta eredugarria egin dela deritzo Epaimahaiak.

✎ Saritutako sekzioa: «*Nire butakatxotik*», Iñaki Uria jaunaren zuzendaritzapeko Euskaldunon Egunkaria-n argitaratua 1992. urteko uztailan, Frantziako txirrindularitza itzulia zela-eta.

Sekzioaren egile: Mikel Elortza jauna.

9.3. «Baloraziozko kazetaritza» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Lehenago aipatu erizpideez gain, komenigarri deritzogu, urtero egin legez, oinarrietako laugarrenak atal honetako sariari buruz dioena hitzezitz emanda gogorazteari: *«fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikuluak izan beharko dute hauek, nahiz eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako lanak izan. Sari hau erabakitzerakoan, Epaimahaiak oso kontutan hartuko ditu egileak aztergaiari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorrotasuna»*. Losintxa eta goraiquetan alferrik luza gabe, esan dezagun saritutakoa azaldu berri ditugun erizpideei estu-estuan lotzen zaien idazlana izateaz gain, artearen munduan barreiatutako hainbat bizipen, zirkunstantzi eta gai narrazio hari beretik lotuz ondu duen idazlana benetan goi-mailakotzat eritzi behar dela.

✎ Saritutako artikulua: *«Kristalik gabeko leihoa»* izenburukoa, **Jakin** aldizkariak argitaratua bere 74. zenbakiko *“Egunaren gurpilean”* atalean.

Autorea: **Hasier Etxeberria** jauna.

9.4. «Erreportaia» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Oinarrietako bostgarrenak honela dio atal honi dagokionez: *«sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere, estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontutan»*. Labur-labur azalduko dugu aurten saritutako lanaren gaineko aurkezpena; labur, egileak jarraian bigarren urtez jasotzen duelako, hain zuzen ere, «Erreportaia» ataleko «Rikardo Arregi» Saria. Nahikoa izango ahal da hori saritutako lana zein kalitate mailakoa den nabarmentzeko!!

✍ Saritutako erreportaia: «*Selma Huxley: itsasoetako erregina*», El Diario Vasco egunkariaren **Zabalik** gehigarrian 1993ko urtarrilaren 13an argitaratua.

Autorea: **Pako Aristi** jauna.

Honaino, bada, V. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Sariari dagokion azken erabakia, Epaimahaikide guztiok ontzat eman eta sinatu duguna gaur, Andoainen, mila bederatzirehun eta larogei eta hamairuko uztailaren hamarrean.

Stua.: M^a Pilar Collantes Ibáñez

Stua.: Jesus Etxezarraga Zuluaga

Stua.: Elixabete Garmendia Lasa

Stua.: Joseva Garzia Garmendia

Stua.: Joxe Aranzabal Mendizabal

Stua.: Jon Unanue López